

MEDIKUNTZA. Komunitate zientifikoak ezbaian jarri ditu onurak

Lehen umetoki transplantea aurkeztu dute lau medikuk

2000an Saudi Arabian egin ebakuntza hiru hilabetez ondo joan zen



EGUNKARIA

Umetokiaren transplantea egin dute lehenbiziko aldiz Saudi Arabian. Alta, ez da guztiz arrakastatsua izan.

Erredakzioa | DONOSTIA

Saudi Arabiako mediku talde batek jakitera eman duenez munduan lehen aldikotz umetoki transplantea egin diote emakume bati. Ebakuntzari garrantzitsu iritziz diote, gaur egun uteroa galdu edo kaltetua dutelakotz umeak izateko gai ez diren emakumeei posibilitatea zabalduko bailitzaieke. Zernahi gisaz, medikuek zehaztu dute transplantea egin zaion emakumeak oraindik ezin izan duela munduratu umerik. Lehen urratsa eginga izan arren, hobetzeko anixko dute medikuek.

Ebakuntza 2000ko apirilean egin zuten Saudi Arabiako Fahd Erregearen Ospitalean, Jiddako Ikerkuntza Zentroaren laguntzaz. Wafa Fagih, Hassan Raffa, Hussein Jabbar eta Anass Marzuki medikuek 26 urteko emakume bati 46 urteko emale baten umetokia transplantatu zioten. Hartzaileak sei urte lehenago histerektomia bat —umetokiaren erauzketa— jasan zuen, odoluste batek bizia arriskuan jarri ondoren.

Halarik ere, transplantaturiko umetokia hiru hilabeteren buruan erauzteko beharrean aurkitu ziren medikuak, odol bildu batzuk garatu eta ehuna kalteztzen hasi zirelaket.

Altabada, ebakuntza egin zuten sendagileen esanetan berau ez zen gaizki atera, denbora batez umetokia ondo ibili baitzen. Funtzionamenduan atxikitze

RICHARD SMITH

Londresko Chelsea & Westminster Ospitaleko medikua

«Bada emakume talde ttiki bat umeak izateko irrikaz eta hori lortzeko halako ebakuntzak egiteko prest legokeena»

estrogenoz eta progesteronaz —emakumezkoen sexu hormonak— hornitu zuten hartzailearen umetokia

Beste organo batzuek ez bezala —zain handiek hornitzen dute—, uteroek zain ttiki batzuek osatutako sare batetik jasotzen dute odola. Horren ondorioz transplantatutako organoa odollez elikatzea arrunt konplexua da, eta arazo franko sor ditzake. Hori gutxi balitz bezala, haurdunaldian beren tamaina hiru bider handitu behar dute umetokia hornitzen duten zainek.

Zenbat buru, hainbat aburu

Komunitate zientifikoaren baitan denetarik iritziak plazaratu dira. Batzuen idurikotz ebakuntzaren lorpenik handiena ikerkuntza medikoko ideia zahar bat eguneratzea izan da, hots, umetokia galdutako emakumeek ume biologiko bat izateko aukera izatea. Beste batzuentzat, aldiz, ebakuntzak arrisku gehiago ditu onurak baino.

Ebakuntzaren egileek aitortu dutenez, «esperientzia klinikoa

eta teknika kirurgikoa hobetuz gero umetoki transplantea aski baliagarria izaten ahal da antzutasunaren tratamendurako, batez ere *alokairuzko amaren* kontzeptua ikuspuntu erlijiosoetik zein etikoetik onartezina den komunitateetan».

Mediku saudiarrek erantsi dutenez, oraingoz umetoki transplante bakarra egin dute, baina prest dauden hainbat emakumeren eskaera jaso dute.

Ebakuntzaren eta haren inguruko iritzien berri *International Journal of Gynecology and Obstetrics* aldizkariak argitaratu du. Bertan atxikita doan editorialean AEBetako aditu Louis Keithek eta Giuseppe Dei Priorek diotenez transplantea «azken muga da organo transplanteen alorrean. Askorentzat ume bat munduratzeko bizitzako gauzarik garrantzitsuenak da; horientzat birsorkuntza organoen transplantea ez litzateke azalderia».

Ildo beretik, Londresko Chelsea & Westminster Ospitaleko mediku Richard Smithek esan duenez, «bada emakume talde ttiki bat umeak izateko irrikaz eta hori lortzeko halako ebakuntzak egiteko prest legokeena».

Bizkitartean, ugalkortasun alorreko aditu Lord Robert Winstonek hitz gordinak esan ditu ebakuntzak ekar dezakeenaz: «Pelbisean usteldutako haragi puska bat jartzeak —transplantean horixe agituko baita— hartzailearen bizia arriskuan jarriko du».

LAGUARREAN

OSASUNA

Ikerketa baten arabera, X izpiak baliatzean birrikako minbiziak maiz geratzen dira antzeman gabe

EGUNKARIA
Erradiografia bat.

Postgraduate Medical Journal aldizkarian Cottinghamgo (Inglaterra) Castle Hill Ospitaleko iker-tzaile batzuek diotenez, medikuek eriei erradiografiak egitean —X izpien bidez— birrikako minbiziak usu antzeman gabe geratzen dira. 1997an birrikako minbizi antzemandako 28 eriren aurreko erradiografiak aztertzean iker-tzaileak ohartu ziren horietako 14ren erradiografiatan 19

akats zeudela. Ondorioz ezin izan zizkieten minbiziak lehenago antzeman, komeni zenean, hain juxtu.

INGURUMENA

‘El Niño’ fenomeno meteorologikoa ohartarazi dute

AEBetako NOAA Agentzia Ozeanografiko eta Atmosferikoak iragarri duenez, oso litekeena da aurki —ez dakite zehatz noiz— *El Niño* fenomeno berriz agertzea. Ikertzaileek Ozeano Pazifikokoan uren beroketa antzeman dute, eta horrek aldageta klimatikoa omen dakar.

INFORMATIKA

Ziberpirateriaren kontrako nazioarteko akordioa indarrean sartu da

WTC Egile Eskubideen gaineko Akordioa aste honetan sartu da indarrean, atzo OMPI Jabego Intelektualaren Munduko Erakundeko kide Geoffrey Yok jakinarazi zuenez. Akordio horrekin Interneten gertatzen den pirateriari aurre egin nahi diote OMPIkoek.

GIZA ESKUBIDEAK

Aditu baten iduriko oraindik ere emakumearen kontrako diskriminazioa gertatzen da Zientzia arloan

Errusiako Geografia Institutuko espezialista Svetlana Sychevak salatu duenez, gaur egun emakumeak diskriminatuta segitzen du hainbat alorretan, horien artean Zientzian. Dioenez, emakume ugari dabilta ikertzaile, baina beren lorpenek ez dute gizonenekin adinako ezagutza eta estimaziorik. Gisa berean, diskriminazioa institutu garaitik hasten dela dio, eta Zientzia Akademietan ere islatzen dela.

AYUNTAMIENTO DE LA ANTEIGLESIA DE LEIOA ELIZATEKO UDALA	
IRAGARKIA LANDABARRI PASEALEKUKO 1 ZENBAKITIK 15ERA DOAN ETXADIARI DAGOKION XEHKAPEN AZTERLANA HASIERAN ONESTE 2002ko martxoaren 6an iragarki hau bidali da BAOera, bertan argitara dezaten: Udal Gobernu Batzordeak, 2002ko martxoaren 5eko batzarrean emandako 142 zenbakiko ebazpenaren bitartez, Alkate-Udalburutzak Landabari pasealekuko 1 zenbakitik 15era doan etxadiaren antolamenduari dagokion xehkapen azterlana hasieran onestea auzibideratu zuen. Plangintza araudia onetsi zuen ekainaren 23ko 2159/1978 zenbakiko Errege Dekretuaren 140 artikuluan ezarritakoari jarraiki, nahi duenak eskuragarri izango du espediente hori astegunez, iragarki hau BAOean argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Iragarkia jendaurrean egongo da udaletxeko 3. solairuan dagoen udalaren bulego teknikoan, eta zehaztutako epean alegazioak aurkeztu ahal izango dira. Zehaztutako epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, gaia behin-betiko onetsitza emango da. Leioa, 2002ko martxoaren 6a ALKATEA, Sin.: Karmelo Sáinz de la Maza	ANUNCIO APROBACIÓN INICIAL DEL ESTUDIO DE DETALLE RELATIVO A LA MANZANA CORRESPONDIENTE A LOS NÚMEROS 1 AL 15 DE PASEO LANDABARRI Con fecha 6 de marzo de 2002 se ha remitido al Boletín Oficial de Bizkaia para su publicación el siguiente anuncio: Mediante resolución núm. 142, adoptada por la Comisión Municipal de Gobierno en la sesión celebrada el día 5 de marzo de 2002, la Alcaldía-Presidencia procedió a la Aprobación Inicial del Estudio de Detalle relativo a la ordenación de la manzana correspondiente a los números 1 al 15 del Paseo Landabari. De conformidad a los señalado en el artículo 140 del Real Decreto núm. 2159/1978, de 23 de junio, que aprueba el Reglamento de Planeamiento, y artículo 7, de la Ley 17/94, de 30 de junio, del Parlamento Vasco, durante el plazo de quince días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación del presente anuncio en el B.O.B., se encontrará el expediente a disposición de quien desee consultarlo, en las dependencias de la Oficina Técnica (3ª planta de la Casa Consistorial), con objeto de cumplimentar el trámite de exposición al público y presentación de alegaciones en el citado plazo. En el supuesto de que en el plazo señalado no se aporten alegaciones, se entenderá aprobado este asunto con carácter definitivo. Leioa, a 6 de Marzo de 2002 EL ALCALDE Fdo.: Karmelo Sáinz de la Maza